

Irunero

473.
2026ko maiatza



↳ **Oiasso Museoa:**
20 urte Irungo
historia biziberritzen

NAAN
HOME

Sukaldeak eta etxeko altzariak

dica

Proiektuak eta erreformak + Showroom-a + Interiorismo estudioa

Lavanderas Kalea, 8 • 747 48 78 87 • @naanhome.studio • estudio@naan-home.com

aurkibidea

- Bertatik Bertara** - Pauso-k Konpainia **4**
- Kalean Bai** - Larreaundi-Olaberria auzo elkarte **6**
- Oiassotik Irunera** - Oiassoko festetako jantziak **7**
- Opila eguna **8**
- Zubia Kirola **10**
- Txingudiko elkarte feminista **12**
- Oiasso Museoaren 20. urteurrena **14**
- Mondragon Unibertsitatea **21**
- Caser Residencial: Crystal proiektua **22**
- Bertso jarriak** **23**
- Denbora pasak** **23**
- Kirola** - Real Unión **24**
- Kirola** - Bidasoa XXI **26**
- Beti Gazte** - Txintxarri txaranga **28**
- iGazte** **30**
- Kultura** **31**



ARGAZKI-ERREPORTAJEA: **OPILA EGUNA** 8



KIROLA: **BIDASOA XXI** 26

irunero

Erredakzioa:
Ainara Berges
erredakzioa@irunero.eus

Administrazioa:
Joseba Arozena

Zuzenketa:
Aitor Lete

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea eta maketazioa:
Maialen Sayans

Inprenta:
Antza

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:



Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



BEGI-BISTAN



800 IKASLE

Irunek osasun mentaleko prebentzio programa pilotua abiarazi du ikastetxeetan.

800 ikaslek baino gehiagok parte hartuko dute ikasturteko hirugarren hiru hilabetez egingo diren 40 tailerretan.



20 PELIKULA

Zinema Guztiontzat egitasmoa urte osora zabaldu da eta edozein hiritarri zuzendua dago.

Haur, gazte, heldu eta dibertsitate funtzionala duten pertsonen apiriletik abendura arte eskainiko diren euskarazko 20 pelikula saioak dohainik ikusteko aukera izango dute.



2.268 M²

Emigratio eraikinaren lehen fase berritua estreinatu da Alejandro de la Sota arkitektoaren eta eraikinaren historiari eta memoriari dedikatutako erakusketa batekin.

Proiektuaren lehen fase honetan egindako inbertsioak, guztira 2.268 metro karratu biltzen dituenak, eraikinaren zati baten barrualdea birgaitzea barne hartzen du.



40.204 BISITARI

Azken hamabi hilabeteetan, Oiasso museoak 40.204 bisitari hartu ditu guztira, bai erakusketa iraunkorren, bai antolatutako jardueretan.

Zifrarik aipagarriena, ordea, erakusketa iraunkorrak lortu du: 21.149 pertsona hurbildu dira termak ikustera, museoaren sortu zenetik izandako kopururik altuena.



300 DEI

Irungo Udalaren telefono bidezko arreta zerbitzuak 2025ean guztira 91.101 dei jaso zituen, hau da, egunean batez beste 304 deiri erantzun zitzaizkien.

Deien arrazoi nagusiari dagokionez, informazio orokorra eskatzea da ohikoena (% 46,6), hala nola kultur agenda, dirulaguntzak edo izapidetegi buruzko xehetasunak.



XVII. EDIZIOA

Irungo tokiko eliteen bilakaera aztertuko du Serapio Mugica Bekaren XVII. edizioko lan irabazleak.

Iñaki Garrido Yerobi eta José Ignacio Arbeláez Montoya ikerlariak burututako ikerlanak XV. mende amaierako eta XVI. mende hasierako Irungo gizarte egitura eta familia nagusien garapena ditu ardatz.

Olaizola
INMOBILIARIA AGENTZIA

SALMENTA-ALOKAIRUAK - PROMOZIO BERRIAK - AHOLKULARITZA

Beraketa kalea, 17 | (+34) 943 64 64 12 | info@inmobiliariaolaizola.com
20302, Irun | www.inmobiliariaolaizola.com

goizetik arrats
HURBILEKOA, ANTJETAN.
89.7/90.5/105.8/94.0FM
AIRK DAB+ BAIONA 100
antxetamedia.eus



BERTATIK BERTARA

PAUSO-K DANTZA KONPAINIA GAZTEA: GAZTEEN TALENTUA ETA MUGIMENDUA UZTARTZEN DITUEN PROIEKTU BERRIA

Dantza adierazpen artistiko hutsa baino askoz gehiago da; diziplina, pasioa eta talde-lana uztartzen dituen hizkuntza unibertsala da. Pauso-K dantza konpainia gaztea euskal dantzaren panorama garaikidean indarrez loratzen ari den proiektua da, sormenaren eta gaztetasunaren arteko lotura hori landuz. Erronka berriez, agertokiko bizipenez eta mugimenduaren garrantziaz hitz egin du Jon Aizpunek, Pauso-K konpainiako dantza irakasleak, Irunen sortutako dantza konpainia berri honetako koreografoak.

Zergatik erabaki duzue Pauso-K, dantza eskola izateaz gainera, dantza konpainia bihurtzea?

Aspalditik Paula Bujandak, akademiako zuzendariak, nahi hori zeukan. Joan zen urtean, urtarrilean, ametsa egia bihurtzeko unea iritsi zela ikusi genuen. Eskolaren 25. urteurrena ospatzen ari ginen eta zerbait berria egiteko unea iritsi zela sentitu genuen. Gainera, ni 2024an Pauso-K-ra itzuli nintzen dantza konpainia batean lanean ibili ostean. Beraz, horrelako zerbait egiteko une aproposa zela pentsatu genuen eta iazko urtarrilean hasi ginen ideia lantzen.

Nola uztartzen dira dantza eskola eta konpainia bat?

Oso ezberdina da dantza eskolarentzat edo konpainiarentzat lan egitea. Ez du zerikusirik eskolako dantzak zuzentzeak, konpainiak eskatzen duen lanarekin. Konturatu gara ikasle askok dantza lanbide bezala izateko prestatzen jarraitu nahi zutela. Beraz, horretarako beste baliabide batzuk lantzen hasteko beharra ikusi genuen, kezka eta zalantzak aldentzen saiatzeko. Horixe da Pauso-K dantza konpainia gaztearen sorreraren arrazoi nagusia: gure ikasleei, kanpora atera baino lehen, dantzari bihurtzeko oinarrizko pausuak ematen laguntzea.

Zure esperientzia, Jon, hainbat dantza konpainiatan lanean

“Bi gauza horiek lortu nahi izan ditugu dantzaren bitartez: hemengo konpainia izatea eta bertako kultura lantzea”

aritu ostean, oso baliagarria izango da proiektuarentzat, noski.

Bai. Egia esan, Pauso-K-n proiektu hau hasi aurretik ni 3 konpainiatan aritu naiz

lanean Madrilan, Frantzia eta Italian. Urte horietan ikasi ahal izan dut nola lan egiten duen dantzari batek eguneroko. Ordu asko egin behar dira lanean eta dantzatzeko, eta ahalegin fisiko handia eskatzen du. Bitartean, emanaldiak dituzu eta leku batetik bestera mugitu behar zara gainera. Hori askotan kanpotik ikusten ez den zerbait da, lanbidean sartzen zaren arte.



Proiektu honek erakusten du, hiriburuetakoa dantza konpainia handiez gain, hemen bertan ere dantzan modu profesionalan aritzeko aukera dagoela, ezta?

Askotan pentsatzen dugu kanpora joatea dela dantzan aurrera jarraitzeko modu bakarra, hemen ez baitaude hainbeste aukera dantza bizitzeko. Traba hori ezabatu nahi genuen eta hemen gelditu nahi duen jendeak bertan dantzatze eta horretan lan egiteko aukera izatea, urrutira joan beharrik gabe.

Gaur egun zenbat kidek osatzen duzue konpainia?

Paula Bujanda da zuzendaria eta ni koreografiekin arduratzen naiz, baina Pauso-K eskolako gainontzeko lantaldeak ere gurekin lan egiten du konpainian. Horretaz gain, 14 dantzari osatzen dute egun konpainia. Hasieran 12 ziren, baina horietako bat kanpora joan da eta Amsterdamen dantzatzeko ari da. Beraz, aurten deialdi bat egin genuen eta bi dantzari berri batu zaizkigu eta orain 14 gara.

Eta, zein izan da konpainiaren barnean sortu duzuen lehen pieza?

Hasi ginen Inguma izeneko pieza bat sortuz. Oso giro intimoko pieza da, dantza garaikidekoa. Gure kultura, mitologia, historia eta mezua zabaldu nahi dugu, aprobeztatuz, lehen esandakoaren harira, hemengoak diren konpainia gutxi daudela eta ondorioz, ez direla hainbeste kontatzen halako gaiak. Bi gauza horiek lortu nahi izan ditugu dantzaren bitartez: hemengo konpainia izatea eta bertako kultura lantzea. Lanak ingumari buruz hitz egiten du, ametsen munduaz eta bertan gure kulturarekin loturiko gauza asko txertatu ditugu. Apirilean Bilboko Orkestra Filarmonikoan hasi ginen emanaldiaren zatitxo bat eginez eta Irungo Euskaraldian beste zati bat aurkeztu genuen. Azkenean, urrian, Ingumako pieza osoa estreinatu genuen Hondarribiko Itsas Etxean.

Hasierak errazak ez badira ere, nolako harrera izan zuen lehen pieza hark?

Bai. Nik uste zailena programazioan zure lana sartzeko leku bat topatzea dela, izan ere, lehia handia dago. Baina, publikoaren aldetik, harrera izugarria izan zen, sarrera guztiak saldu ziren eta, beraz, oso pozik.

Nolakoa da zuen egunerokoa konpainia baten kide izanda?

Esan bezala, gazte konpainia bat gara. Pauso-K dantza eskolako ordutegietara egokitu behar gara entrenatu ahal izateko, akademia honetan gauza asko egiten baitira astean zehar.

Larunbatero asteko entseguak egiten ditugu. Horretaz gain, hilero egin behar ditugun ekintzak aurreikusten ditugu, horrela, egin beharreko lana antolatzen dugu. Orain konpainiako kide berriei

Inguma pieza erakusten ari gara eta haiek piezan txertatzen. Bestetik, pieza berri batekin lehen pausuak ematen hasi gara, gauza berriak egiten inprobisazio askorekin eta gauza berriak probatzen. Pieza berri hau bideratzen hasi nahi dugu.

Eskolako dantzarientzat erreferentzia handia izango da gertutik konpainia bat lanean ikustea, ezta?

Bai, azkenean, unibertsitatera zoazenean praktikak egiten dituzu. Dantzan aldiz, praktikak egiteko aukera hori murriztagoa da. Beraz, aukera hau da prestakuntza hori egiteko modua, gero kanpora lanera ateratzen direnean hobeto prestatuak egoteko.

Uste duzu Konpainia gazte bat zaretela zuen lanean islatzen dela?

Gure entsegetan ilusio handia arnasten da. Edozein ideia planteatzen dudanean nabari da jendea aurrera edozer gauza ateratzeko prest dagoela. Hau da, ez dute inolako trabarik jartzen horretarako, lan egiteko gogoz baitaude.

Hurrengo emanaldiak non eta noiz izango diren argi duzue?

Galdera hori egiteko oso momentu ona da, deialdi asko daudelako oraintxe bertan. Hala ere, apur bat itxaroten ari gara. Badakigu Inguma berriro egingo dugula, baina oraindik ezin dugu baieztatu non eta noiz izango den.

Aurretik aipatutako ametsen mundura itzuliz, noraino eraman nahiko zenukete Pauso-K dantza konpainia?

Egia esan, oraindik proiektuaren hasieran gaudenez, urratsez urrats goaz, pausoka, gure izenak dioen bezala. Uste dut gure nahia ekitaldi asko egitea dela, ideia desberdinak landu ahal izateko. Azkenean, dantza ez da soilik antzoki baten barruan egin behar, beraz, dantza beste lekuetara eraman nahi dugu. Beste zentro batzuetara eraman nahi dugu, dantza zerbait artistikoa izateaz gain, pedagogikoa ere badelako. Ondorioz, uste dugu konpainia leku askotara eraman dezakegula eta hori izango litzateke gure ametsa.

“Azkenean, dantza ez da soilik antzoki baten barruan egin behar, beraz, dantza beste lekuetara eraman nahi dugu”

all4móvil
Asesoría en telefonía y comunicación

LORTU TARIFARIK ONENA TELEFONIA MUGIKORREAN, FINKOAN, INTERNETEN ETA TELEBISTAN

Puiana kalea 30 behea | 652 11 85 97 / 843 63 08 80 | all4movil@all4movil.com | www.all4movil.com

LARREAUNDI-OLABERRIA: AUZOA EUSKARATIK ETA KOMUNITATETIK LORATZEN

Irun hiriko Larreaundi eta Olaberria auzoek bizitasun berria hartu dute azken urteotan, eraldaketa sakon baten ondorioz. Mikel Valerok, auzo elkarteko kideak, azaldu digunez, duela lau edo bost urte belaunaldi aldaketa garrantzitsu bat hasi zen elkartearen. Jende gazteagoa sartzeak, aurretik zeuden beteranoen harrera onarekin batera, proiektu eta espazio berriak lortzeko bultzada eman dio elkarteari. Gaur egun, elkarteak ez da soilik kudeaketa administratiborako gune bat; auzo komunitatea indartzeko eta euskara sustatzeko motor nagusia bihurtu da Irunen.

Larreaundi-Olaberria auzo elkartearen zutabe nagusietako bat hizkuntzaren aldeko apustu irmoa da. Horren erakusle garbiena da Irungo Udalak sustatutako Kalean Bai programaren parte izatea. Valerok nabarmendu duenez, euskara ez da gai isolatu bat, baizik eta jarduera guztietan txertatzen saiatzen diren zehar-lerroa.

Duela hiru urte, AEK euskaltegiarekin elkarlanean, euskara ikasteko talde bat jarri zuten martxan auzoan bertan.

“Interesgarria iruditu zitzaigun euskaltegiaren eskaintza auzora hurbiltzea, jende askorentzat errazagoa delako auzo elkartera etortzea euskaltegi batera joatea baino”, dio Valerok. Ekimen honek arrakasta handia izan du: bertako ikasleak ez dira hizkuntza ikastera soilik mugatzen, auzoko Euskara Batzordearen oinarri bilakatu baitira. Talde honetatik Euskararen Eguna, Euskaraldia edo Korrika bezalako egitasmo garrantzitsuak koordinatzen dira, auzo euskalduntzeko norabidean urrats sendoak eginez.

Euskararen sustapenak auzoko denda, taberna eta eskoletara ere egiten du salto. Eguzkitza eskolarekin duten harremana oso estua da, eta horri esker, “Euskarak saria du” ekimena finkatu dute. Horren bidez, merkatari eta ostalariarekin batera, bezeroek lehen hitzak euskaraz egitea saritzen dute zozketa baten bidez. Umeek eurek parte hartzen dute kartelak egiten eta kutxak banatzen, belaunaldi berriak hizkuntzaren ohitura aldaketan inplikatu eta dendariak ere prozesu horren parte bihurtuz.

Lankidetzeta eta ekimen praktikoak

Hizkuntzaz gain, elkarteak kultura aniztasuna eta inklusioa lantzen ditu. Auzoko lokal berriari esker, eskaintza zabala dute: tai-chi, pilates, sevillar dantzak edota ingeles

“Interesgarria iruditu zitzaigun euskaltegiaren eskaintza auzora hurbiltzea, jende askorentzat errazagoa delako auzo elkartera etortzea euskaltegi batera joatea baino”

Mikel Valero, Larreaundi-Olaberria auzo elkarteko kidea

ikastaroak. Gainera, Zubia inklusio zentroarekin eta kale-hezitzaileekin batera lan egiten dute, auzo kohesionatuago bat eraikitzeko. Erronka handia da, boluntarioen lana ezinbestekoa baita; duela gutxi Roberto lehendakaria zendu izana galera handia izan den arren, lantaldearen

gogoak proiektua aurrera ateratzea ahalbidetu du.

Jaiak eta Etorkizuneko Erronkak

Maiatza iristearrekin batera, auzo jai giroan murgilduko da (maiatzaren 1etik 3ra). Aurten, ohiko buruhandi eta kontzertuz gain, BAT atletismo taldearekin haurrentzako lasterketa bat eta Zubia zentroak antolatutako tortilla txapelketa izango dira. Jai hauek Irungo lehenetariok dira eta komunitatea trinkotzeko balio dute.

Etorkizunera begira, Valerok argi du erronka nagusia: komunitatearen kohesioa euskaratik lantzea. Horretarako, auzoan plaza baten beharra aldarrikatzen jarraituko dute, topagune fisiko hori funtsezkoa baita harremanak estutzeko. Ekipamendu zabalagoak eta zentralizatuagoak lortzea da hurrengo urratsa, auzo elkartearen funtzio tradizionalak gainditu eta zerbitzu modernoagoak eskaini ahal izateko. Larreaundi-Olaberriak erakutsi du auzo elkarte bat tradiziozko mugetatik haratago joan daitekeela, euskara eta elkartasuna bidelagun hartuta.



ERROMATAR GARAICO OIHALAK, TINDUAK, ETA... USAINAK!

Badatoz, badatoz... festak! Oiasso Museoaren 20. urteurrena, Dies Oiassonisak... eta festa horietarako jantzi aproposak prestatzen hasi beharko dugu. Duela 2.000 urte ere, Oiasson ospatzen ziren festetarako, bertako biztanleek, festa horietara zer jantziko zutenaren kezka ere izango zuten, seguru.

Erromatar garaiaz hitz egiten dugunean, ia beti harrizko, zeramikazko edo metalezko aztarnetan jartzen dugu arreta. Baina jantziek ere garrantzi handia izan zuten Oiassoko garai haietako gizartearen. Nahiz eta material galkorra izan eta gutxi kontserbatu, inguru hauetan topatu dira oihal zatitxoak eta bereziki garrantzi handia duten larruzko oinetakoak; baita oihalak ehuteko erabiltzen ziren zeramikazko pisuak, etab. Horrez gain, arkeologoen eta iturri klasikoak aztertzen dituzten ikerlarien lanari esker, erromatar garaian zer-nolako oihalak erabiltzen ziren, nola ehuntzen zituzten, oihalak kolorez betetzeko erabiltzen ziren tinduak, edota garaiko janzkerak nolakoak izan zitezkeen jakiten laguntzen digute.

Erromatar garaian, oihalak egiteko gehien erabiltzen zen materiala artilea zen. Ardiak ohikoak ziren erromatar munduan, eta artilea lantzeko material erraza izateaz gain, beroari eusteko ezin hobea zen. Horregatik, jantziatarako ez ezik, tunika bezalako piezetarako ere asko erabiltzen zen. Lihoa ere ohikoa zen oihal arinagoa eta freskoagoa egiteko, batez ere garai beroetarako. Lihozko oihalak gainera, azpiko jantziatarako eta etxeko oihaletarako erabiltzen ziren.

Kotoia berriz, erabiltzen bazen ere, ez zen hain arrunta. Grezia klasikoan esate baterako, ez zuten hitzik kotoierentzat. Herodotok, esaterako, “arboletako artilea” deitzen zion. Hala ere, Oiassoko garai haietan, eta seguruenik portuari esker, kotoiez egindako oihalak iritsiko ziren, kostalde honetara, baina gehienetan goi mailako jendeak erabiltzen zuen oihala zen.

Baina material hori landu egin behar zen, haria sortu arte, eta ondoren hari hori ehundu egin behar zen. Prozesua luzea izaten zen, eta teknika ondo ezagutu behar zen. Gehienetan etxe barruko lana izango zela diote, baina oihalak egiteko tailer profesionalak ere bazeuden.

Baina modak agintzen duenean, koloreek eta apaingarriek garrantzi handia hartzen dute. Horregatik ehundutako oihal horiek tindatzea zen hurrengo urratsa. Bi modutako tinduak erabiltzen ziren, landareak erabiliz ala mineralak erabiliz, baina baziren tindu oso berezi batzuk, adibidez molusku batzuetatik lortzen zuten purpura kolorea. Tindu berezia bezain preziatua. Tindaketaren prozesua ez zen lan erraza izaten, eta horretarako teknika ere oso landua zen, oihalaren kolorea aberatsa izateko, kolorea oihal guztian berdindua egiteko... Hainbat tailer mota zeuden tinduetarako: officina infectorian oihala lehen aldiz tindatzen zen, eta officina ofectorian erabilitako jantziek beren kolorea berreskuratzen zuten. Bestalde Officinae fullonicae izena zuten tailerretan, bereziki artilezko jantziek berreskuratzen zuten kolorea. Ez ziren lan errazak. Tailer

handiak izaten ziren, askaz beteak, eta bertan oihalak garbitu, zuritu eta lantzen zituzten. Eta horretarako gehien erabiltzen zena amoniakoa izaten zen. A zer usaina! Baina ez da hori okerrera... Nondik ateratzen zuten amoniako hori? Jendearen pixa hartzituz fermentatuz. Horretarako tailerren atarian pixatokiak jartzen zituzten, eta likido hori aska handi batzuetan biltzen zuten, hartzitu ondoren, amoniakoa lortzeko. Ederra usaina! Irakurtzen ari zaren bitartean, seguru nahi gabe ere, nazka keinuren bat atera zaizula.

Baina jatorrizko kolorea berreskuratzen zuten Fullonika tailer hauek, negozio oparoak bihurtu ziren. Horregatik Vespasiano enperadoreak, zerga bat ezarri zien pixa jasotzeagatik. Suetonio erromatar historialariak dioenez, Vespasianoren seme Tito ez zegoen neurri horrekin ados, eta aitari aurre egin zion. Orduan, Vespasiano enperadoreak urrezko txanpon bat sudurrera hurbildu, eta usain txarra ote zuen galdetu zion. Titok ezetz erantzun zionean, aitak horrela erantzun zion: “Atqui ex lotio est”, hau da, “Pixa da jatorria”. Hortik dator Vespasianoren Axioma ezaguna: Pecunia non olet, alegia, diruak ez du usainik!



← Argazkia: “Pondus”, ehuntzeko pixua. Oiasso Museoa.

BELAUNALDIZ BELAUNALDIKO OPARIA: SAN MARKO EGUNA IRUNEN




atrezzo
 marko denda
 Geltoki kalea, 16 info@atrezzo.eus 943617298 www.atrezzo.eus

Fernando Vergara
 Argazkilaria
 www.fotogover.com
 www.fotogoverbodas.com
 info@fotogover.com
 LETXUNBORRO HIRB. 100, 2º
 IRUN 20305 GIPUZKOA
 943 840 113 - 647 930 484

EZKONTZAK
 2026-2027
 STUDIO
GOVER
 FOTOGRAFIA

INKLUSIOA ZAPATILA PARE BATEN GAINEAN: ZUBIA KIROLA EGITASMOAREN ARRAKASTA IRUNEN

Susana Ruiz Bidasoa Atletiko Taldeko entrenatzaileak eta Zubia Kirola egitasmoaren gidariak, proiektuaren muina eta ibilbidea xehatu ditu, inklusioa eta elkartasuna ardatz dituen begirada sakon baten bidez. Ekimen honek kirola ez du helburu soil gisa hartzen, gizarte-eraldaketarako eta integraziorako ezinbesteko erreminta gisa baizik. Horrela, bazterkeria arriskuan dauden pertsonen gizarteratzea bultzatu nahi da, euren ongizate fisikoa eta osasun mentala lehenetsiz.

Irungo kaleetan, bidegorrietan zein Uranzu frontoiaren babesean, talde berezi bat ikus daiteke astean bitan martxan. Ez da soilik korrika saio bat; inklusioaren aldeko urrats sendoa da. Bidasoa Atletiko Taldeak (BAT) eta Zubia gizarteratze zentroak elkarlanean sortutako Zubia Kirola proiektuak kirola eta gizarte laguntza uztartzen ditu, eta Susana Ruiz da motor hori gidatzen duen entrenatzailea. Programa horrek, hasieratik, helburu argia izan du: kirol-praktika gizarteratzeko eta komunitatea eraikitzeko tresna bihurtzea, egoera zaurgarrian dauden pertsonen euren ingurunearekin lotura osasuntsuak sortzeko aukera emanez.

Elkarlanetik sortutako bidea

Proiektuaren jatorria Zubia zentroan bertan dago, bazterkeria egoeran dauden pertsonen arreta ematen dien espazioan. Ruizek gogorarazi duenez, hasieran zentroko arduradunekin egiten zuten kirola astean behin, baina jarduera hori egituratu eta profesionalizatzeko beharra ikusi zuten. “Zubiakoak BATekin harremanetan jarri ziren, kirola ekintza osagarri gisa finkatzeko asmoz. Klubean proposamena jaso eta niri eskaini zidaten; bi aldiz pentsatu gabe onartu nuen”, azaldu digu entrenatzaileak.

“Klubean proposamena jaso eta niri eskaini zidaten; bi aldiz pentsatu gabe onartu nuen”

Susana Ruiz, BATeko eta Zubia Kirola proiektuko entrenatzailea

Ekimen hau Irungo Udaleko Gizarte Ongizate eta Kirol arloen babesarekin sortu zen, erakundeen arteko lankidetzaz funtsezkoa dela erakutsiz.

BAT bezalako klub batentzat, mota honetako ekimen bat

zuzentzea ohiko atletismo entrenamenduetatik haratago doa. Ruizen hitzetan, klubean konturatu dira kirolak duen balio terapeutikoak: “Inklusioa lortzeko bide zuzenena dela ikusi dugu. Erabiltzaileei ordu horrek burua argitzeko eta eguneroko kezak alde batera uzteko balio die”. Gainera, kluba bera ere aberastu egin da, gizarte-errealitate ezberdinetara ireki baita, elitiko kirola eta herri kirola gizarte ekintzarekin uztartuz.

Entrenamenduak asteartetan eta ostiraletan izaten dira, eta saio bakoitza “mundu bat da”, eguraldiaren eta kirolarien egoeraren arabera moldatzen baita. Eguzkia dagoenean, Irun inguruko bidegorriak bihurtzen dira euren pista. Euria edo hotza egiten duenean, berriz, Uranzu frontoia dute babesleku, Udalak utzitako instalazioei esker.



ZUBIA GIZARTERATZE ZENTROAN

ASTEARTEETAN ETA OSTIRALETAN

INKLUSIOA KIROLAREN BIDEZ



Malgutasun hori ez da soilik espaziora mugatzen, baita pertsonetara ere. “Kirol maila ezberdinetako jendea etortzen da. Norbaitek ezin badu korrika egin edo min hartuta badago, nire laguntzaile bihurtzen dut. Denentzat dago lekua”, dio Susana Ruizek. Adibidez, Ramadan garaian, ariketen intentsitatea jaisi eta paseo lasaigoak edo luzaketak egiten dituzte, parte-hartzaileen erlijio-ohiturak eta indar fisikoa errespetatuz. Errespetu eta egokitzapen gaitasun hori da Zubia Kirola proiektuaren arrakastaren gakoetako bat, inor atzean utzi gabe aurrera egitea ahalbidetzen baitu.

Taldearen osaera aldakorra da, normalean 10-12 lagun ingurukoa. Batzuk korrikalari finkoak dira, baina beste asko denbora motz batez igarotzen dira zentrotik. Susana Ruizek aitortu du hasieran batzuei kostatu egiten zaiela taldera batzea, “bakarrik korrika egiten dugula pentsatzen dutelako”, baina behin probatuta, hurrengo entrenamendua noiz den galdetzen diote etengabe. Garrantzitsua da azpimarratzea parte-hartzaile askok Helduen Hezkuntzako (HHE) ikasketekin uztartzen dutela kirola, beraz, entrenamenduak ikasketekin tartekatzen dituzte.

Lasterketak eta boluntarioria

Zubia Kirola proiektuaren helburu nagusietako bat parte-hartzaileak hiriarri begira ikusaraztea da. Hori lortzeko, hiriko lasterketa herrikoietan parte hartzea funtsezkoa izan da: Gabonetako Krosean, Irungo Miliak 5K edo San Silvestre lasterketan parte hartu dute. “Lasterketek helburu bat jartzen laguntzen diete, motibazio gehigarri bat da”, nabarmendu du entrenatzaileak.

Baina integrazioa ez da soilik korrika egitea. Emaitzak haratago doaz: “Boluntario gisa ere aritzen dira. Behobia-Donostia lasterketan, adibidez, motxilak kargatzen lagundu zuten, edo anoia postuetan janaria eta edaria prestatzen eta banatzen egon dira. Komunitatearen parte sentitzea da gakoa”. Horrela, laguntza jasotzen duten pertsonak izatetik, hiriarri ekarpena egiten dioten herritar aktibo izatera pasatzen dira.

Ekimen honek babes zabala du. Irungo Udala eta Laboral Kutxa

dira bultzatzaile nagusiak, baina Larreaundi auzoaren harrera ere aipagarria da. Izan ere, proiektua irekia da: auzoko edozein herritarrek taldearekin entrenatzeko aukera du. “Auzora irekitzea zen erronka nagusia, eta lortzen ari gara”, dio Ruizek. Horrela, aurreiritziak apurtzen dira eta bizikidetzaz sustatzen da auzotarren eta zentroko erabiltzaileen artean.

Elkartasunerako deia

Kirola egiteko materiala oztopo izan ez dadin, BAT klubak material bilketa iraunkorra du martxan. Ruizek herritarrek animatu dituzte erabiltzen ez dituzten zapatilak, kamisetak edo galtzak dohaintzan ematera: “Urte osoan zehar jaso ditzakegu, betiere materiala egoera onean badago. Gurekin harremanetan jartzea besterik ez dago”. Ekimen honek klubeko bazkideen eta Irungo herritarren artean oihartzun handia izan du, elkartasun sare bat sortuz.

Etorkizunari begira, Susana Ruizek ez du mugarik jartzen. Ekainaren 7an Irungo Miliak 5K lasterketan parte hartuko dute, eta erronka berriak sortzeko gogotsu dago. “Niri honek poza ematen dit. Jende asko ezagutzeko aukera eman dit eta beraiekin primeran nago”, dio irribarrez. Bere mezua argia da oraindik animatu ez direnentzat: “Probatu ez duena, probatzera etorri dadila”.

Zubia Kirola ez da soilik atletismo proiektu bat; Irun solidarioago eta inklusiboago baten ispilu da. Auzora irekitzearekin eta herritarrek parte-hartzearekin, proiektuak frogatu du inklusioa ez dela helburu bat, eguneroko bidea baizik, urrats bakoitzak, motelena bada ere, helmuga berera garamatzen bitartean: duintasunera, osasunera eta erabateko integrazioa.

“Lasterketek helburu bat jartzen laguntzen diete, motibazio gehigarri bat da”

Susana Ruiz, BATeko eta Zubia Kirola proiektuko entrenatzailea



ZERBITZU ELEKTRIKO GUZTIAK ESKURA IZANGO DITUZU

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK - NEURRIRA EGINDAKO ARGIEKIN AZTERKETA - DOMOTIKA ETA AUTOMATISMOAK
BIDEO ZAINTZAK ETA ALARMAK - AHOTSA ETA DATUAK - PROIEKTUAK ETA LEGEZTATZEA - MANTENTZE LANAK

info@mrelectricsystems.com | (+34) 669 30 23 12



ZURE OSASUNA, GURE LEHENTASUNA

FISIOTERAPIA - ERREADAPTAZIOA - NUTRIZIOA - PSIKOLOGIA

Hondarribia kalea, 34W | (+34) 623 00 73 21 | info@aurreraklinika.com | www.aurreraklinika.com

TXINGUDIKO ELKARTE FEMINISTA ETA EMAKUMEEN ARTEKO ALIANTZA BERRIAK IRUNEN

Txingudiko Elkarte Feminista duela sei urte sortu zen Irunen, hiriko bizitza politikoan eta sozialean eragiteko helburu argiarekin. Olga Rivas presidentea eta Pilar Gracenea idazkariak gogorarazi dutenez, elkartearen sorrerako asmoa berdintasunaren bidean urrats sendoak egitea eta emakumeen ahotsa erabakiguneetan entzunaraztea izan zen. Hasiera-hasieratik, elkartearen filosofia nagusia beste emakume batzuekin sareak jostearen garrantzian oinarritu da, indarrak batuta bakarrik lortu baitaiteke gizartearen eraldaketa sakona.

Sei urteko ibilbide honetan, elkartea zabaldu eta indartu egin da, eta gaur egun Irunen erreferente bihurtu diren hainbat proiektu kudeatzen ditu. Betiere ateak parez pare zabalik mantenduz, parte hartu nahi duten emakume guztientzat, beraien jatorria edo egoera zein den alde batera utzita.

Emakume Sarea Irun

Gaur egun elkarteak esku artean dituen egitasmoen artean, Emakume Sarea Irun izeneko nabarmenak da bereziki, azkenaldian indar handia hartu duen ekimena baita. Proiektu hau egoera zaurgarrian dauden pertsonen administrazio-izapideak egiten laguntzeaz gain, elkartearen emakume etorkinek bestelako babes bat ere behar zutela konturatzekoan sortu zen, eguneroko bizitzan aurrera egin ahal izateko. Pilar Gracenea azaldu duenez, emakume hauek sarritan isolatuta aurkitzen dira, hizkuntza oztopoak dituzte eta ez daukate sare sozialik inguruan. Horregatik, elkarteak laguntza emozionala eta praktikoa eskaintzen die, izan eskolako bileretara laguntzeko, izan hirian nola mugitu ikasteko edo, besterik gabe, kafe baten inguruan esperientziak partekatzeko. Helburua ez da soilik laguntza ematea, baizik eta emakume horiek sozializatzea

eta Irunen beren bizitza berria eraikitze bideak erraztea.

Zentzu honetan, albiste pozgarria jaso berri du elkarteak, orain gutxi onartutako dekretu bati esker elkartearen erregistroan onartuak izan baitira zaurgarritasun ziurtagiriak kudeatzeko. Horrek esan nahi du aurrerantzean

Txingudiko Elkarte Feministak gaitasuna izango duela dokumentazio ofiziala aurkezteko eta administrazioaren aurrean emakumeen haren egoera bideratzeko. Kutxa Fundazioak finantzaturako proiektu honetan Marión Le Róic Mendizabal da koordinatzailea, baina haren oinarri nagusia emakume boluntarioak dira. “Bitxia eta itxaropentsua da ikustea nola hasieran laguntza eskatzera etorri ziren emakume asko gaur egun laguntzaile bihurtu diren, beste emakume batzuei babes emanaz”, azaldu du Pilar Gracenea. Saretze horren ondorioz, emakume hispanoamerikarren elkarte propio bat sortzeko prozesuan murgilduta daude orain, ahalduz kolektiboaren adibide argi gisa.



“Bitxia eta itxaropentsua da ikustea nola hasieran laguntza eskatzera etorri ziren emakume asko gaur egun laguntzaile bihurtu diren, beste emakume batzuei babes emanaz”

*Pilar Gracenea,
Txingudiko Elkarte
Feministako idazkaria*



Bidean

Bidean izeneko programa da elkartearen beste apustu berri nagusietako bat, kasu honetan indarkeria matxista jasan duten emakumeen zuzendutakoa. Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatuta, proiektu honek bigarren urtea bete du eta hainbat kolaboratzailearen ekarpena jasotzen du, Emma Larretarena, adibidez, Leire Valero arduradunaren laguntzarekin batera. Programa honen helburu nagusia emakumeen autoestimua berreskuratzea eta espazio seguruak eskaintzea da, indarkeriaren ziklotik atera ondoren beren burua berreraiki dezaten. Pilarrek eta Olgak azpimarratu dute proiektu honetan sortzen diren loturak oso indartsuak direla eta denboran irauten dutela. Emakumeen artean sortzen den ahizpatasuna funtsezkoa da prozesu terapeutikoan. Gainera, “elkartearen baitan proiektuen arteko zeharkakotasuna sustatzen dugu, indarkeria jasan duten emakumeak beste talde batzuetara, running taldera adibidez, bideratuz, kirolak ere asko laguntzen duelako osatze prozesuan”, gaineratu du Olga Rivasek.

Bestelako programak martxan

Kirola eta feminismoa uztartzen dituen running taldea da egun Txingudiko Elkartearen ekimenik jendetsuena eta arrakastatsua. Hasieran hogeitabat emakume elkartearen espero bazuten ere, gaur egun 130 emakume osatzen dute taldea. Pilar Gracenea argi utzi nahi izan du proiektu honek ez duela lehiakortasuna bilatzen, baizik eta gozamen eta saretzea: “emakume askorentzat kirola egitea oztopo handia izan da urteetan, eta talde honek beldurrak eta mugak apurtzeko balio izan die”. Sandra Piñeiro formatzailearen eta Elena Serrano koordinatzailearen eskutik, astearte eta ostegunetan entrenatzen dute hiru mailatan banatuta. Runningaz gain, indar tailerrak eta osasunari zein nutrizioari buruzko saioak egiten dituzte, betiere ikuspegi feministatik. Laster Biarritzen egingo den errelebo maratoian parte hartuko dute 45 emakumerekin, hiriko kaleetan ikusgarritasuna lortuz eta kirola egiteko beste modu bat posible dela erakutsiz.

Kulturak ere badu bere lekua elkartearen programazioan, Antzerki Feminista tailerraren bitartez. Patxi Perezek zuzenduta, Paola Ormeño arduradunaren

“Proiektu bakoitzak arduradun bat duen arren, elkarteak modu organikoan eta koordinatuan lan egiten du, kide bakoitzaren ekarpena baloratuz”
Olga Rivas, Txingudiko Elkarte Feministako lehendakaria

laguntzarekin, antzerkia tresna gisa erabiltzen dute berdintasun mezuak zabaltzeko. Iaz Asun Casasola lehiaketako ipuinetan oinarritutako irakurketa dramatizatuak egin bazituzten, aurreko berdintasunaren inguruko eszenak prestatzen ari dira, gizon eta emakumeen arteko harremanak aztertzeko. Honekin batera, hezkuntza arloan ere lan garrantzitsua egiten dute pornografiaren eta praktika sexual onen inguruko tailerrekin. Hirugarren urtez, Irungo institutu publikoetako gazteekin elkarriketarako izaten dituzte Lahia 3.0 elkartearekin elkarlanean. “Helburua da nerabeei sexualitate osasuntsu eta errespetuzko baterako erremintak ematea, egungo kontsumo ereduak sortzen dituzten desparekotasunei eta biolentziari aurre egiteko”, azaldu du Olga Rivas lehendakariak.

Bestalde, Alardeari lotutako proiektu bat kudeatzen dute Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin Alardearen inguruan jasandako indarkeria eta bazterketa emozionalak kudeatzeko. Espazio honek emakumeen arteko bizipenak partekatzeko eta sufritutakoa aitortzeko balio du, aldi berean egoeraren bilakaera aztertuz eta etorkizun baketsu baten aldeko hazia ereinez. Horretarako, elkarlanean aritzen dira Marietta, Thania eta Arantxa. Horretaz gain, urtero irailaren 23aren inguruan, emakumeen salerosketaren eta sexu-esplotazioaren aurkako performancea antolatzen dute. Ekitaldi hau oso berezia da elkartearentzat, iaz zendu zen Ana Perez kideak zuzentzen baitzuen. Gaur egun Marietta Vicentek, koordinatzen du ekimena, Lourdes Burgosen ardurapean, eta iaiztik gizonak ere integratu dituzte performancean, gaitz sozial honen aurrean denon inplikazioa beharrezkoa dela adierazteko.

Amaitzeko, Olga Rivasek eta Pilar Gracenea azpimarratu dute elkartearen erronka nagusia giza eskubideen defentsa dela, beti ere ikuspegi feminista batetik. “Proiektu bakoitzak arduradun bat duen arren, elkarteak modu organikoan eta koordinatuan lan egiten du, kide bakoitzaren ekarpena baloratuz”, azaldu du Olga Rivasek. Etorkizunera begira, martxan dituzten egitasmoak egonkortzea eta hazten jarraitzea da asmoa, ikasitako bidetik abiatuta. Txingudiko Elkarte Feminista ez da elkarte soil bat, Irungo emakumeentzat babes sare bat da, elkarrekin indartsuagoak direla sinesten duten emakumeen topagunea. Berdintasunaren aldeko borrokan, proiektu bakoitza pauso bat gehiago da gizarte justuago baten bidean, eta elkarteak tinko jarraituko du bide hori urratzen, saretzea eta ahizpatasuna ardatz hartuta.



IKUS-ENTZUNEZKO PROIEKTUAK - BIDEO GRABAKETA ETA EDIZIOA - MULTIMEDIA

info@bideosare.com | (+34) 680 37 15 66 | www.bideosare.com

OIASO MUSEOA

OIASO MUSEOAK HOGEI URTE BETETZEAR DA IRUNGO ERROMATARREN IRAGANA BIZIRIK MANTENTZEN

Irungo bihotzean, historia eta modernitatea batzen diren eremuan, Oiasso Museoak bere 20. urteurrena ospatuko du 2026. urte honetan. Zehazki, abuztuaren 20an beteko dira museoaren lehen bi hamarkadak. Denbora horretan, museoa ez da soilik arkeologiagune bat izan; hiriaren nortasunaren, gizarte bizitzaren eta turismoaren ardatz nagusietako bat bihurtu da. Urteurren borobil honen harira, proiektuaren bilakaera, hasierako oztopo gogorak, gaur egungo "errekorren" garaia eta etorkizuneko erronkak aztertu dituzte Mertxe Urteaga museoaren sortzaileetako batek eta lehen zuzendariak, Aizpea Goenaga eta Juanjo Jimenez egungo zuzendaritza taldearen kideak eta Nuria Alzaga Irungo Kultura ordezkariak.



ETORRI ETA GOZATU ZURE LAGUN ETA
SENIDEENTZAKO GIRO ATSEGINAZ

KARTA • EGUNEKO MENUA • PLATER BEREZIAK • PAELLAK • PINTXOAK
ERRAZIOAK • OGITARTEKOAK • HANBURGESAK • HAURREN MENUA

Anzaran plaza, 14, Irun, Gipuzkoa | 943 664 897 / 684 802 482 | www.pikarorestobar.com



OIASO MUSEOA

Oiasso Museoa 20 urte betetzen ditu 2026an, eta bide horretan mugarri garrantzitsuak gainditu ditu bere sorreratik. Dena 1992an hasi zen, Santiago kaleko obretan erromatar garaiko portua aurkitu ostean, Mertxe Urteagaren susmoei eta bultzatutako lanei esker. Museoaren kokapena ere aurkikuntza arkeologikoei baldintzatu zuten; izan ere, antzinako eskola publikoaren eraikina hautatu ostean, erromatar termen aztarnak azaldu ziren bertan. Hamar urteko prestakuntza lanaren ostean, 2006ko uztailaren 20an ireki zituen ateak. Gaur egun, museoa hiriaren ardatz turistiko eta soziala bihurtu da, “terminen efektuari” esker bisitarien errekorrak lortuz eta teknologia berriak ondarearen zerbitzura jarritz.

Gaur egun Oiasso Museoa finkatutako errealitatea bada ere, bere jaiotza ez zen bide erraza izan, ezta aurreikusitako zerbait ere. 1969. eta 1970. urteen artean lehenengo arkeologia lanak egin ziren, Jaime Rodríguez Salísen ikerketetatik abiatuz. 1971n Santa Elena ermitan nekropolia aurkitu zen; 106 errausketa kutxa eta hiru mausoleo berreskuratu ziren, aztarnak 1982an publikoari ireki zitzaizkion lehen aldiz, musealizazio prozesu baten ondoren, 1989. urtean birmoldatu zena.

Mertxe Urteaga arkeologoak gogoan du nola dena kasualitate bati esker hasi zen, Santiago kalean egindako drainatze obra galanta baten inguruan. Emakume baten deiak piztu zuen alarma, egitear zen obrak, zabalera murriztuko zuela ikusita, arkeologikoki jardutea proposatu ostean. Urteagak, Londresen ebaluazio arkeologiko profesionala egiten ikasitakoa izanik, bazuen susmoa eremu horretan erromatar garaiko aztarnak egon zitezkeela.

“Udaletxean azaldu genuen eta inuxente-inuxente obra horren inguruan lan arkeologiko bat egin behar zela esan genien, aukera handiak baitzeuden bertan aztarna erromatarrek topatzeko”, gogoratzen du Urteagak. Jasotako erantzuna, ordea, ez zen batere argia izan 1992 hartan; agintariek konfiantza gutxi zuten aurreikuspen horietan. Hala ere, Foru Aldundiaren laguntzarekin zundaketak egin eta, hara non, portu erromatarra azaldu zen. “Bi hilabete eman zizkiguten lan arkeologiko hori egiteko eta hala egin genuen; erromatar garaiko portua azaldu zen”, gaineratu du Urteaga arkeologoak.

Aurkikuntza horrek harridura sortu zuen, baina baita kezka ere, obrak atzeratzea eta kostu gehigarriak zekartzalako. 1993an indusketa arkeologikoak bukatu ziren, baina museoak 2006ra arte ez zituen ateak ireki. Tarteko urte horietan, gizartearen iritzia aldatzea izan zen erronkarik handiena. 1995ean Amaia antzokian egindako erakusketak bidea urratu zuen, Irunek iragan erromatarrekin lotura estua eta ukazina zuela erakutsiz. Izan ere, indusketei esker portua aurkitzeaz gain, 25.000 zeramika zati, haziak eta larruzko zapatak ere aurkitu ziren, ordura arte irungo errailetan ezkutaturik gorde zirenak. Hori erakutsita jendea txundituta geratu zen, eta orduan hasi zen agintarien aldetik

“Bi hilabete eman zizkiguten lan arkeologiko hori egiteko eta hala egin genuen; erromatar garaiko portua azaldu zen”

Mertxe Urteaga, museoaren sorreran inplikaturako arkeologoa

bilduma hori guztia museo bihurtzeko proposamena. Mertxe Urteagak azaldu duenez, “1996an Arkeolanek eskaera hori jaso zuen udalaren aldetik eta horretarako lanean jarri ginen”.

Museoarentzako kokapen bila

“Balioa ematen diogu hiritarrek museoan partekatzen dituzten esperientziei”

Juanjo Jiménez, Oiasso Museoko zuzendari-ordea



Museoa non kokatu erabakitzea beste gudu zelai bat izan zen. Horretarako udalak baldintza bat jarri zuen: udal ondasunen barnean zeuden ondasunak aztertzea. Hainbat udal ondasun aztertu ziren: Barón de Oña etxea, Doucoureau edo Villa Madariaga, esaterako. Azkenean, abandonatutako eskola publikoaren eraikina hautatu zen, eskolaren lursailan egindako aurkikuntza baten ondorioz. Garai hartan, eraikin hori egoera tamalgarrian zegoen: etxerik gabeko jendea bizi zen bertan, eta droga salmenta zein prostituzioa ohikoak ziren inguruan.

Hala ere, erabaki horrek sari handia ekarri zuen. Kasualitatez, museoaren atzeko zelaian zundaketak egin eta erromatar garaiko terminen aztarnak azaldu ziren. Horrek garbi utzi zuen kokapena hori izan behar zela. Mertxe Urteagak gogoratzen du prozesu horretan eraikina botatzeko agindua ere egon zela, eta arkeologoei berriro ere gogotik borrokatu behar izan zutela. Azkenean, fatxadak behintzat zutik mantentzea erabaki zen, barrutik guztiz hustu bazuten ere. Urteaga arkeologoak aipatu duenez, orain justu azterketa bat amaitu berri du Iberiar penintsulako erromatar garaiko portu guztien inguruan. “Aztertu ditut aztarna guztiak eta orain arte arkeologikoki hoberen ezagutzen den portua Oiassokoa da”.

Prozesua ez zen soilik teknikoa izan, baita gatazkatsua ere. Urteagak epaitegira joan behar izan zuen 200.000 euroko isun mehatxu bati aurre egiteko, bilduma arkeologikoak Arkeolanen biltegian zeudelako. “Norbaitek ere museoa ez egitea nahi zuen eta salaketa hori ipini zuen”, gogoratzen du. Hala ere, alderdi politiko guztiakin banan-banan hitz egin ondoren, denek batera proiektuaren alde egitea lortu zen, beldurrak eta erasoak gaindituz. Horrela, aurkikuntza besopean hartu eta nazioarteko kongresuak zeharkatzen hasi aurretik, Mertxe Urteagak gogoratu du “guk erabaki genuen Irungo gizartearen aurrean lan egitea”. Beraz, hitzaldiak ematen hasi ziren edozein tokitan eta edozein aitzakiarekin, Irunen iragan erromatarra ezagutarazteko. Gero bai, hamar urte geroago, 2003an, nazioartera atera

“Dies Oiassonis festa handi bat izango da 20. urteurren hori ospatzeko”

Aizpea Goenaga, Oiasso Museoko zuzendaria

“Kulturaliki eta turismoari dagokionez, hiriarentzat erreferente bat izan zen museo honen irekiera”

Nuria Alzaga, Irungo Udaleko lehen alkateordea

ziren, Pisan egindako erromatar garaiko portuen inguruko jardunaldi batzuetara.

20 urteko bilakaera

Museoak 2006ko uztailaren 20an ireki zituen ateak, eta ordutik hazkunde etengabea izan du. Nuria Alzagak, Irungo lehen alkateordeak, nabarmendu du duela 20 urte egindako apustu finko eta argi horrek gaur egun fruitu oparoak ematen dituela. Bere ustez, “kulturaliki eta turismoari dagokionez, hiriarentzat erreferente bat izan zen museo honen irekiera”.

Gaur egungo egoera bereziki oparoa da, “terminen efektua” deiturikoari esker. 2025ean 44.000 lagun igaro ziren museotik, errekor historikoa lortuz. Alzagak argi du: “Errekor historiko hori zalantzarik gabe termengatik izan zen”. Next funtsen laguntzarekin proiektu hau etorkizunera begira egokitzea posible izan delako.

Baina datu turistikoetatik haratago, Alzagak irundarrekiko lotura azpimarratzen du. Terminen irekierak etxekoengan eragin berezia izan du. “Gogoratzen dut inaugurazioaren egunetan zehar irundar asko ikusi nituela... eta askok onartu zituzten museora sartzen ziren lehen aldian izan zela”. Kuriosoa da, Alzagak dioten bezala, pertsona horiek agian Madrilgo edo Bartzelonako museoetan egonak zirela, baina ez beren hirikoan. Nuria Alzagak aipatu duenez, “askotan ez gara konturatzen baina ez dugu ezagutzen gure hiriaren historia behar den bezala”. Orain, joera hori aldatzen ari da, eta irundarrak “Irun Erromatarren” kontzeptuarekin identifikatzen hasi dira.

Bitzita propioa duen museoa

2019tik, Aizpea Goenagak eta Juanjo Jimenezek daramate museoaren lema elkarlanean. Jimenez museoa sortu zenetik aritu da bertan lanean eta “harro” sentitzen da bere lanaren bidez Irungo eta Euskal Herriko historiaren zati hau hobeto ezagutzen laguntzeagatik. Aizpea Goenagak nabarmendu du museoaren zuzendaritzan erronka handiak gainditu behar

“Aztertu ditut aztarna guztiak eta orain arte arkeologikoki hoberen ezagutzen den portua Oiassokoa da”

Mertxe Urteaga, museoaren sorreran inplikaturako arkeologoa

izan dituztela, pandemia barne. “Pasa ditugu gorriak eta beltzak”, dio, baina museoa pandemian ere bizirik mantentzea lortu zutela azpimarratuz, eskaintza bereziekin.

Zuzendaritza taldearen

Aral Quiromasaje
MASAJE ON BAT MEREZI DUZU
www.aralquiromasaje.com
Larretxipi Kalea 17 | (+34) 643 26 92 76

BADOA
BIZIKLETA BIZITZA DA
BIZIKLETA BIDEZKO BANAKETA · ALOKAIURUA · DENDA
REPARTO EN BICI · ALQUILER · TIENDA
+34 943 099 647 Santiago, 49, Irun
+34 722 653 643
badoa@badoa.eus | badoa.eus | @badoa_bb

lassai
Psikologa
ZERK KEZKATZEN ZAITU?
www.lassaipsiologia.com
San Francisco Kalea 46 (10. lok.) | 632 40 21 88



lehentasuna hiru maila orekatzea izan da. Batetik, maila sozialean Irungo elkarteekin lan eginez eta hiritarrei zerbitzua emanez.

Bestetik, maila dibulгатiboa, museoaren edukia publiko guztiei (gazte zein heldu) helaraziz FICAB, Dies Oiassonis eta hitzaldien bidez. Azkenik, maila akademikoa ikerketa bultzatuz eta nazioarteko kongresuetan parte hartuz.

Teknologia berriei dagokienez, museo egokitu bada ere, zuzendaritzak irizpide argia du: ondareari lehenetsia eman behar zaio. Juanjo Jimenezek hitzetan, “balioa ematen diogu hiritarrek museoan partekatzen dituzten esperientziei”. Goenagak dioenez, “teknologiak lagundu dezake irudikatzen... baina ondarea da benetan balioa duena”. Ez dute nahi teknologia berriek pieza arkeologikoen ondasuna estaltzea. Juanjo Jimenezek bat egiten du: “Digitalizazioak eta teknika berriek laguntzen dute, baina horiek bakarrik ez dute zentzurik museoan, pieza arkeologikoekin lotura izan behar dute”.

Bi hamarkada ospatzear

20. urteurrena ospatzeko egitarau zabala prestatu da. Nuria Alzagak aurreratu du 2026. urte osoan zehar nabaritutako dela urteurrena, ez bakarrik uztailean. Kasualitatez, aurten Dies Oiassonis jaialdia uztailearen 16tik 19ra ospatuko da, eta museoak 20 urte betetzen ditu justu hurrengo astelehenean, uztailearen 20an.

“Dies Oiassonis festa handi bat izango da 20. urteurren hori ospatzeko”, iragarri du Goenagak. Ospakizun hauen artean, maiatzaren 18an Mertxe Urteagak emango duen hitzaldia nabarmentzen da. Goenagaren ustez, “museo batek ezin ditu ahaztu bere jatorriak” eta garrantzitsua da hasierako zailtasunak eta ilusioak berreskuratzea. Juanjo Jimenezek ere lantalde osoaren esfortzua baloratu nahi izan du, pertsona askoren ardura eta lanari esker atera baita proiektua aurrera.

Begirada jada etorkizunean

Nolakoa izango da Oiasso Museoaren hurrengo bi hamarkadetako bidea? Mertxe Urteagak uste du “espero ez ditugun gauzak” espero ditzakegula. Urteagaren ustez, oraindik gauza asko daude deskubritzeko. Hala ere, ohar bat egin du: udalak museoaren izaera eta nortasun propioa gehiago aitortu behar ditu.

“Askotan ez gara konturatzen baina ez dugu ezagutzen gure hiriaren historia behar den bezala”

Nuria Alzaga, Irungo Udaleko lehen alkateordea

Nuria Alzagarentzat berriz, sorpresa handia izan da berarentzat 20 urteren ostean erakusketa finkoak ere bisitari errekorrak lortzea.

Zuzendaritza taldearen aldetik, Juanjo Jimenezek dio helburua dela programazio

“Pasa ditugu gorriak eta beltzak”
Aizpea Goenaga, Oiasso Museoko zuzendaria

aberatsa mantentzea eta zerbitzu hobereana ematea. “Gure helburua izango da jarduera programazio aberatsa eta ugaria eskaintzea”, dio. Erroren artean instalazioen zati batzuk berritzea eta pieza arkeologiko gehiago ekarri ahal izatea daude.

Aizpea Goenagak ilusioari eta dinamismoari eusteko beharra azpimarratu du: “Ezin gara funtzionatzen duenaren etengabeko errepikatze soilean geratu”. Bere ustez, jendearekin sortutako sarea elikatzen jarraitu behar da, feedback-a jasoz eta gauza berriak sortzeko gogoia galdu gabe.

Oiasso Museoa, beraz, 20 urteko heldutasunera iritsi da, baina bere gaztetasuna eta itxurari eutsiz. Irungo erromatar portu

“Gure helburua izango da jarduera programazio aberatsa eta ugaria eskaintzea”

Juanjo Jiménez, Oiasso Museoko zuzendari-ordea

zaharraren gainean eraikitako ametsak bizirik jarraitzen du, hiriarri bere historia oparoa gogoraraziz eta mundu osoko bisitariak txundituz.



Descansalia

ZURE ATSEDENA, GURE LEHENTASUNA

KONPROMISORIK GABEKO EROSOTASUNA - KONFIANTZAZKO MATERIALAK - ARRETA PERTSONALIZATUA

Luis Mariano kalea 2 | (+34) 666 35 97 08 | info@descansalia.com

1969

Jaime Rodríguez Salísek ikerketak egin zituen Irungo Juncal plazan, Oiasso hiri erromatarra bertan zegoela frogatzeko asmoz.



Juncal elizaren eremuan egindako indusketan aurkitutako aztarna arkeologikoak (1970). (Iturria: Irungo Udal Artxiboa. Erreferentzia zk.: 40516). 1969-1970

1969
1970

Lehenengo arkeologia lanak egin ziren; bertan, erromatar zeramika, beira, fauna eta txanpon ugari azaldu ziren.



1971

Santa Elena ermitan nekropolia aurkitu zen; 106 errausketa kutxa eta hiru mausoleo berreskuratu ziren.

Erromatarren garaiko portuaren armazoiaren aztarnak, haritzeko habe eta pilotez osatuak, 1992-1993 bitartean Irungo Santiago kalean kokatuak. (Iturria: Irungo Udal Artxiboa. Erreferentzia zk.:29302). 1992

1982

Santa Elena ermitako aztarnak publikoari ireki zitzaizkion lehen aldiz, musealizazio prozesu baten ondoren.



"Oiasso" Erromanizazioaren Museorako proiektua, Irungo eskolen eraikinean. (Iturria: Irungo Udal Artxiboa. Erreferentzia zk.: 29266). 2001

1989

Ermitako museoa birmoldatu zen, Irun inguruan egiten ari ziren aurkikuntza berriak barneratzeko.



Neskatoen Eskola zaharra Erromanizazioaren Museoren egoitza izateko prestaketa lanak 2004an. (Iturria: Irungo Udal Artxiboa. Erreferentzia zk.: 42680).

1992

Santiago kalean erromatar portua aurkitu zen, egoera bikainean kontserbatutako egurrezko egiturekin eta objektu askorekin, Oiasso portu-hiri gisa berresten duena.

2006
(uztailak 20)

Oiasso Erromatar Museoa ofizialki inauguratu eta jendearentzat ireki zen.

2005

Eraikinaren atzealdeko orubean erromatar termak aurkitu zituzten, gune berotu eta bainuekin.

2002

Museoaren eraikina (Eskola Publiko zaharra) zaharberritzeko obrak hasi ziren.

2001

Exekuzio proiektua idatzi zen, eraikuntza lanak zehaztasunez programatzeko.

1999

Museoaren oinarritzeko proiektua aurkeztu zen, espazioen banaketa eta eduki tematikoak zehaztuz.

1995
(udaberria):

Ikerketen emaitzak erakusten zituen erakusketa bat antolatu zen Irungo jendearentzat; hori izan zen museoaren proiektuaren ernamuina.

Gure ikasleen ahotan

Onintza Oiartzabal, gastronomia eta sukaldartzako arteen 4. mailako ikaslea:

“URTEROKO PRAKTIKEKIN AUKERA IZAN DUT LAN MUNDUA EZAGUTZEKO”

Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu hobby edo zaletasunik?

Txiki txikitatik Elizalde Herri eskolan ikasi izan dut, batxilergora arte, orduan IES Xabier Zubiri Manteora joan behar izan nuelarik. Pertsona alaia, mugitua, kuriositate handikoa eta langilea naizela uste dut. Zaletasunen artean ba tipikoenak, kirola asko gustatzen zait, mendira joatea, lagunekin egotea eta, noski, sukaldatzea.

Zergatik aukeratu zenuen Gastronomia eta Sukaldaritza Arteak gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Batxilergoan zientzien adarretik nentorren, eta ingeniariatza, kimika edo biologia ikastea nuen buruan. Aldi berean, etxean astebururo postreak egiten nituen eta asko gustatzen zitzaidan. Nere gertuko lagun bat graduan sartu zen eta berak kontaktzen zidan zer egiten zuten klasean eta asko erakartzen ninduen. Ikusi nuen gradu honek bai alde zientifikoa eta baita nire zaletasuna ere uztartzen zituela, eta horregatik aukeratu nuen. Gure inguruan gradu hau eskaintzen duen bakararra denez, Basque Culinary Centerera etortzea erabaki nuen.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Egia esan, 4 urte hauetan oso ongi pasatu dut eta aldi berean izugarri ikasi dudala sentitzen dut, pixka bat denetatik. Oso desberdina da gradu hau, urte hauetan pila bat aldatu naiz pertsona bezala: urteroko praktikekin aukera izan dut lan mundua ezagutzeko. Kanpora ere joan naiz eta ingelesa ikasi dut, pila bat landu ditut komunikazio abildadeak eta nigan dudak konfiantza ere areagotu dut, aurkezpen ugari egin behar izaten baitugu...

Nola definituko zenuke BCCn jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Oso desberdina da, jada 4 urte pasa dira eta ohitu naiz, ez naiz ohartzen baina gogoratzen naiz hasieran oso jakintza desberdina zela. Oso praktikoa, sektoreko profesionalen solasaldi ugari, azterketa gutxi eta lan asko, talde lanean egun osoa; ikuspuntu oso desberdinetatik ikusten da gastronomia. Merkatuan bide pila bat daudela ikusi dut, existitzen zirela ere ez nekien bideak.

ONINTZA OIARTZABAL MAISTERRENA

21 URTE

OIARTZUN

GASTRONOMIA ETA SUKALDARITZAKO ARTEEN GRADUA

4. MAILAN

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna?

Lantzen diren puntu desberdin guztiak, ia-ia egunero irteera desberdin bat ikusten dut. Oso gustuko dut ere gertukoak ikusten dudala ikasten dudana, hau da, gastronomia gure egunerokoan oso sartua dago, bai aisialdian, supermerkatuan erosten dugunean, etxean jaten duguna egunero... eta horretaz ohartzea, lehen ikusten ez nituen gauzak ikusteak, alegia. Jakitea biharko egunean bide pila batetik joan naitekeela, lan pila bat eta gauza asko daudela lantzeko gure sektorean. Gure lanbidean jendeak lanbidea zenbat bizitzen duen ikusteak, beraien ideia landu eta aurrea eramateko egiten duten esfortzua.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Momentuz ikerketa mundutik jarraitzeko erabakia hartua daukat. Hala ere, Graduak eskaintzen duen hainbeste aukerarekin ez daukat oraindik oso argi zehazki nondik joango naizena... Alde horretatik Graduak irteera profesional ugari eskaintzen ditu eta abantaila handia da.



CASER RESIDENCIALEK CRYSTAL PROIEKTU EUROPARREAN PARTE HARTZEN DU, BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA BERRETSIZ

Gizarte- eta osasun-sektorearen eraldaketa bultzatzeko konpromiso sendoan, Caser Residencialek berrikuntzaren aldeko apustua berretsi du CRYSTAL proiektuan aktiboki parte hartuz. Nazioarteko ikerketa-ekimen honek etorkizuneko arreta-eredu berriak definitzea du helburu, azken belaunaldiko teknologia eta ikuspegi sakonki gizatiarra uztartuz.

Nazioarteko bikaintasun-kontsurtzioa

CRYSTAL proiektua Europako Batzordeak finantzaturako Marie Skłodowska-Curie (MSCA – SE) ekintza prestigiotsuen barruan kokatzen da. Euskal Herriko Unibertsitatearen (EHU) lidergopean, ekimenak ezagutza transferitzeko sare bat artikulatzen du lehen mailako erakundeen artean.

Alde batetik, honako unibertsitate hauek hartzen dute parte: Granada, University of Ulster (Erresuma Batua), Universitat Luigi Vanvitelli (Italia) eta Management Center Innsbruck (Austria). Bestetik, Intelligence Voice eta Pneuma Health (Erresuma Batua), Apptek (Alemania) eta Smarted (Italia) bezalako enpresa teknologikoen esku hartzen dute, Caser Residencialekin batera, azken honek Espainiako laguntza-eremuko erreferente gisa.

Arima duen teknologia

Beste garapen teknologiko batzuek ez bezala, CRYSTALek ez du soilik efizientzia teknikoa bilatzen, loturaren kalitatea ere bilatzen baitu. Helburu nagusia Adimen Artifizialean oinarritutako elkarrizketa sistemak sortzea da, modu zehatz eta, batez ere, enpatikoan elkarreragiteko gai direnak.



Tresna horiek berariaz diseinatu ari dira ahultasun egoeran dauden pertsonen laguntza emateko, bezeroaren arreta optimizatzeko eta teknologia aliatu eskuragarria dela bermatzeko. Gainera, proiektuak ebaluazio protokoloak barne hartzen ditu, erabiltzaileen motibazioak ulertzeko eta berrikuntza horiek egunerokoan benetan eta modu positiboan onartuko direla ziurtatzeko. “Anbizio handiko proiektua da eta, etorkizunera begira, aldaketa handiak ekar ditzake egoera desberdinetan dauden pertsonen emandako arretan eta laguntzan”, adierazi dute erakundetik.

Ibilbide luzeko bidea


Ekimenak lehen urratsak egin ditu jada Caser Residencialeko zentroetan egindako profesionalen arteko topaketekin, baina lan horizontea zabala da. Proiektuak lau urteko iraupena du guztira, eta 2028an amaitzea aurreikusten da.

Lankidetzaren bidez, Caser Residencialek etengabeko hobekuntzaren aldeko apustua berrestez gain, Europako ikerketa zientifikoko proiektuetan funtsezko eragile izateko konpromisoa hartzen du, zahartzeak eta mendekotasunak soluzio gizatiarragoak, adimentsuagoak eta eraginkorragoak izan ditzaten lanean.



DENBORA-PASAK

Gurutzegrama: Erromako Historia



Horizontal

- 1- Ardoa, olio edo bestelako gaiak gordetzeko erabiltzen zen ontzi handia.
- 5- Erromatar etxe eta eraikinetan lurra edo hormak apaintzeko erabiltzen zen irudia.
- 6- Erromatar herritar askok zeramaten jantzi bereizgarria.

Bertikal

- 2- Gladiadoreen borrokak eta ikuskizunak egiten ziren eraikina.
- 3- Erromatarrek ura hirietara eramateko eraikitzen zuten egitura handia.
- 4- Erromatar hirietako bizitza politiko eta sozialaren erdigunea.

6 Hitz: Konstelazioak

C	J	F	P	E	R	S	E	O	L	H	R	I	K
S	L	A	W	R	C	U	S	B	W	Z	E	H	A
X	C	J	D	Y	R	M	S	U	X	Z	D	T	S
P	F	W	Y	J	O	V	N	S	H	K	U	C	I
F	F	A	D	P	G	T	L	P	P	R	W	Q	O
J	W	C	N	F	C	E	T	E	K	P	D	L	P
J	N	I	P	D	H	T	X	T	O	Q	F	Y	E
A	Y	E	H	Q	R	E	X	H	V	C	X	R	A
P	U	O	V	F	E	O	I	L	T	W	D	J	G
E	K	K	G	H	F	X	M	G	P	N	V	X	U
G	A	C	R	B	T	A	J	E	L	O	A	I	E
A	F	S	D	Q	A	L	R	A	D	E	L	T	E
S	V	D	D	Z	H	N	G	D	K	A	V	O	G
O	R	R	O	R	I	O	N	B	V	Z	V	H	V

- Orion
- Andromeda
- Kasiopea
- Pegaso
- Perseo
- Leo



OPILA

Doinua: (ezagutu zuenak)
Egilea: Lorea Abejon Sunsundegui

Apirilan gaudenez opila aipatu, bizkotxo moduko bat da erregalatu. Irun, hondarribian dute bedeinkatu, San Markos egunean dugu guk probatu.

Gu atera kalera ta okindegietan, erakuslehoetan daude gure bistan. Baita etxean ere egiten da bertan, eta gero guk jarri txitak opiletan.

Beti ama bitxiak egiten du opari, bere besoetako duen pertsonari. Jaiotzen garenetik daukagu janari ta urtero eskertu ama bitxiari.

Orain eroskin gaude karroa betetzen, gurina non dagoen ari naiz asmatzen. Gero azukrea ta arrautzak aurkitzen, zer gehiago falta zait ari naiz pentsatzen.

Pentsatu ta pentsatu txitak falta zaizkit, hortxe dagoen hori hartu dut lehenik. Bukatu erosketa ta goazen hemendik, bizkotxo egingo duzu zuk ala nik.

Piztu labea eta goazen aстера, pixkana- pixkanaka dena nahastera. Irabiagailuarekin guztia batzera, gero molde batean labean sartzera.

Atera bizkotxo oraintxe labetik, eta goazen jartzera arrautzak gainetik. Goxokiak ere gehitu pixka bat hemendik, luma eta txittoa jarri dugu azkenik.

Orain eramatera joan behar dut nik, etxean egiten dut beti- betidanik. Mimos eta kariñoz nik egiten dakit, onen tradizioa dator aspadietik.



Erantzunak webgunean:
www.irunero.eus/denborapasak/



KIROLAK

Argazkiaren egilea: Barbara Duarte →

LEHEN RFEF MAILARAKO IGOERAREN GAKOAK ETA ETORKIZUNENKORRONTAK REAL UNIÓNEAN

Real Uniónek, aurtengo denboraldian Bigarren RFEF mailan aritu ostean, datorren urterako mailaz igotzea lortu du. Denboraldia amaitu baino lehen lortu du aurtengo helburu nagusia zena, urtebete lehenago mailaz jaitsi ostean. 2026-2027 denboraldian Lehen RFEF mailara itzuliko dira. Igoerak klubean utzitako zapore onaz hitz egin dute Igor Emery Real Unióneko presidentea eta Jon Tena irundar eta taldeko atezainak.

Nola ikusten zenuten denboraldi honetan mailaz igotzeko aukera?

Igor: Nik, klub bezala, buruan daukat oraindik iazko irudia Lezaman. Han jokatu genuen azken partidua RFEF mailan. Ia 1.000 irundar izan ziren bertan talde zuri-beltza babesten eta momentu gogor haietako batasun irudia gogoratzen dut etengabe. Uste dut orduan, duela urtebete, hasi ginela igoera hau lortzen. Beraz, irudi horrekin geratzen naiz.

Jon: Oso ongi. Oraindik lau jardunaldi falta direnean igotzea lortzen duzunean, erraza dirudien arren. Denboraldia nola joan den ikusi dugu. Kostata hasi ginen, baina talde ona izan dugu eta entrenamenduetan bilakaera ona ikusi da. Orain 3 aste dauzkagu ospatzeko eta denok disfrutatzen.

Azken urteetan denboraldi korapilatsuak izan ostean, denboraldi honetarako taldearen berritzea nola antolatu zenuten?

Igor: Lezamakoa gertatu ondoren taldea osatzen hasi ginen. Lehen gauza Bigarren RFEF mailan lehiatzeko nolako taldea behar genuen jakitea izan zen. Hasiera hartan helburua ez zen igoera, talde on bat osatzea baizik, lehiakorra. Entrenatzailez aldatzea erabaki genuen proiektu honetarako. Ramsésen erreferentziak geneuzkan eta talde tekniko on batez inguratzen saiatu ginen. Hortik aurrera, Mikel Bengoa kirol zuzendariarekin profilak aztertzen hasi ginen, jokalarien bila joan aurretik. Denboraldi hasieran Jonek esaten zidan egunerokoan oso sentsazio onak zituela, momentuan emaitzak onak ez baziren ere eta, aurreko egun batean gogoratzen nion bezala, emaitzak iritsi dira. Gure helburua egunerokoa ona izatea da, gerora emaitzak ere onak izateko. Honek erakusten digu aurreko taldearen berreraikitzearekin asmatu dugula, Real Unión sendo bat eduki arte.

Zure kasuan Jon, plantillako kide gisa, taldea osatzea lortu duzuela nabaritu duzu?

Jon: Hori da. Jokalariaren aurretik, pertsona dago eta hori beraien lanari esker izan da. Jokalariok familia bat izatea lortu dute, baita klubeko jendearekin eta zaletuekin eta hori sumatu da. Oso aldagela ona izan dugu eta horrela denboraldiari aurre egitea erraza izan da.

“Gure helburua egunerokoa ona izatea da, gerora emaitzak ere onak izateko”

Igor Emery, Real Unióneko presidentea

Hasiera kaxkarra izan arren, azarotik aurrera lortutako emaitza onek agian igoera lortzeko esperantza eman dizute pixkanaka?

Jon: Azknean partiduak jokatu behar dituzu. Ni pertsonalki asteen zehar partiduak ondo lantzean zentratzen naiz, irabazten saiatzeko. Jarraian hainbat garaipen generamatzala aipatu zidatenean ni ez nintzen konturatu, burua eguneroko lanean genuelako. Denboraldian zehar eguneroko lanean zentratzeak lasaitasun hori eman digu. Partidu on eta txarrak izan arren, lerro beretik jarraitzea lortu dugu.

Kategoria bat beheerago jokatzek ez du esan nahi denboraldi erraza izan denik.

Jon: Jokalariak klubaren identitatea sentitu dutela uste dut eta horrek partidu batzuk azken minutuetan irabazten lagundu digu, elkarrengan sinesteari esker. Zaleek ere asko lagundu digute, oso garrantzitsuak baitira.

Igor: Zaleek hemen zein kanpoan jokatzekoan lagundu dute. Azken momentuan eta jokalaria bat gutxiagorekin irabazi diren partiduak talde sendoa izateari esker izan da, azken minutuko aukerak aprobetxatuz. Partidu askotarako bi autobus betetzea



“Jokalariek klubaren identitatea sentitu dutela uste dut eta horrek partidu batzuk azken minutuetan irabazten lagundu digu, elkarrengan sinesteari esker”

Jon Tena, Real Unióneko atezaina

lortu dugu, nahiz eta egia den maila honetan bidaiak erakargarriagoak direla, laburragoak baitira. Jendea mugitu nahi izan da taldea elkarrekin lehiatzen ikusi duelako. Ikusitakoaz harro sentitu gara eta jokalariek babesa nabaritu dutela uste dut.

Nola espero dituzue denboraldia amaitu aurretik jokatu dituzuen azken partiduak?

Igor: Taldeak partiduetan jarraitzaile asko bertan izatea merezi duela uste dut. Bai Amorebietaren aurkakoan zein mailari agur esateko azken partiduan, taldea txalotzeko. Maiatzaren 1ean, ostiralean, arratsaldeko 17:00etan jokatu dugu aurtengo azkena eta arratsalde hori Stadium Galen jai polit bat izatea nahi dugu, multzoko garaile izateagatik garaikurra emango baitigute. Festa bat antolatuko dugu gure kide txikienekin ere, eta beraz, denak hemen egotea espero dugu.

Jon: Partidu horiek irabazten saiatuko gara, garaipenak jendeari oparitzeko. Festa bat izatea nahi dugu, jendea animatzeko eta ilusio horrekin jendea datorren denboraldirako animatzeko. Inertziak lasaia hartzen dituzu orain geratzen diren partiduak, baina uste dut jokalaria profesionalak garelako eta inoiz baino hobeto entrenatzen ari garela, erritmo onarekin, beraz, gustura gaude. Jokalariak gara eta denei bezala irabaztea gustatzen zaigu, beraz, aurretik ditugun partiduetan horretan saiatuko gara, ahalik eta puntu gehien ateratzeko.

Igor: Aipatu nahi nuke, jokalariek jakingo duten bezala, oraindik partidu hauetarako helburu batzuk baditugula. Adibidez,

Bigarren RFEF osoko talde hoberena izatea eta, horretarako, etengabe entrenatzen ari gara. Igoeraren egunean, igandean, hemen jokatu zuten, hurrengo egunean jai izan zuten, baina asteartean berriro hemen zeuden lanean. Lehiakorrak izaten jarraitzea helburu polita da eta parean ditugu taldeak errespetatzea, guk ahalik eta partidurik hoberena eginez. Bakarka jokalariek ere badituzte hobetzeko beren helburu propioak eta partidu bakoitzean aukera berri bat dute. Beraz, gozatuko dugu, baina lanean eta handinahiaz.

Irundarra izanik, Jon, etxean jokatzu eta mailaz igoz, urte berezia izan da zuretzat?

Jon: Aukera proposatu zidatenean ez nuen bi aldiz pentsatu. Taldea bai ala bai igotzea nahi nuen eta horretarako ez dut uste inork nik baino indar handiagoa egin duenik. Etxean eta auzoan sentitzean, familiak eta txikiak gertuz sentituz. Azken urteak zailak izan ostean, ilusioa nabaria zen, beraz, ondo.

Igor, datorren denboraldira begira taldea osatzeko gauzak pentsatzen hasi zarete?

Igor: Lo hartu gabe lanean ari gara jada. Orain datozen asteetan apur bat lasaia ibiliko gara, baina bulegoan egunerokoan lan dezente egin beharko dugu, adibidez, datorren urterako izen ematea ondo egiteko. Denborarekin, kirol arloa ondo antolatuko dugu. Beraz, lanik ez da falta eta klub bezala dinamika onean gaudela uste dut. Urtebete honen ostean, Real Unión osasuntsuago eta sendoago dagoela argi daukat. Maila horretan egotea nolako den badakigu, gogorra baita zelaian zein bulegoetan. Erantzukizun eta handinahiez aurre egingo diogu datorren denboraldiari.

kiroletik

BIDASOA ESKUALDEKO KIROLAREN TXOKOA

info@kiroletik.eus | (+34) 948 04 20 52 | www.kiroletik.eus





KIROLAK

BIDASOA XXI KLUBEKO NESKA JUNIORREN ERRONKAK ETA AMETSAK DENBORALDIAREN ERDIGUNEAN

Irune Ausan, Nora del Rio eta Maialen Fernandezek Bidasoa XXI klubeko igerilariak dira eta denboraldi hasieran markatutako erronkei jarraiki, gogor entrenatzen ari dira denboraldi amaieran. Junior mailako igerilari hauek euren egunerokoa igerilekuko hormen artean igarotzen dute, esfortzua eta pasioa uztartuz. Ikasturtea amaitzear dagoen honetan, denboraldiaren une erabakigarrian aurkitzen dira, helburu berriak begiz jota eta orain arte egindako lanaren balantzea egiteko prest.

Igerilari hauentzat, denboraldia ez da jarraipen lineal bat; bi zati bereizietan banatzen da, bakoitzak bere exigentzia maila eta prestaketa espezifikoa duelarik. Maialenek azaldu duenez, “oraintxe bertan denboraldia berriro hasten ari garela esan dezakegu”. Izan ere, lehen zatia eskolako ikasturtea hasi baino pixka bat lehenago abiatzen da eta neguko Euskadiko Txapelketarekin amaitzen da. Behin mugarri hori igarota, bigarren faseari ekiten diote, non intentsitatea eta lehiaketa motak aldatu egiten diren.

Hasiera horiek, gainera, ez dira beti uretan izaten, gorputza egokitu egin behar baita hilabeteetako lanerako. Irune Ausanek gogorarazi duenez, prestakuntza fisiko orokorra funtsezkoa da

uretara bultzada handienarekin sartzeko: “Denboraldi hasieran batez ere korrika egiten hasten gara, baita eskailerak igotzen edo gimnasioan ere. Gero, pixkanaka, uretara sartzeko gara”. Trantsizio progresibo horrek oinarri sendoa ematen die ondoren etorriko diren hilabete luzeetako lehiaketei eta eguneroko saio nekagarriei aurre egiteko.

Urtean zeharreko bidea mailaz maila eraikitzen dute. Hasierako ligak Gipuzkoan eta Euskadin jokatzeko dira, non klubeko igerilari guztiak lehiatzen diren. Nora del Rio zehaztu duenez, lurraldeko txapelketak irekiagoak diren arren, jauzi handia Espainiako Txapelketan dago: “Espainiako txapelketan lehiatu ahal izateko marka minimo batzuk lortu behar izaten dituzu. Euskadin, aldiz, klubeko igerilari guztiak lehiatzen gara”. Horrek exigentzia puntu gehigarri bat ematen die eguneroko entrenamenduei, segundo bakoitzak balio baitu maila gorenera iristeko.

Bidaiek ere errutinaren parte dira, batez ere nazio mailako hitzorduak iristen direnean. “Ligako txapelketak hemen inguruan izaten dira, baina Espainia mailakoetan, txapelketa non den arabera, urrutiago joatea tokatzen zaigu”, gehitu du Irunek. Distantziak handiak izan arren, esperientzia horiek kirolari gisa hazteko aukera ematen diete.

Norberaren mugak gainditzea

Banakako helburuei buruz galdetean, hiruek argi dute: hobekuntza pertsonala da motorra. Maialen Fernandezentzat, aurtengoa iazko lesioak atzean uzteko

“Oraintxe bertan denboraldia berriro hasten ari garela esan dezakegu”

Maialen Fernandez, Bidasoa XXIeko igerilaria



urtea izan da, eta horrek indarberritu egin du. “Nire helburua Espainiako txapelketara joaten saiatzea zen. Iaz ez nuen lortu lesioengatik, eta aurten teknika ere asko hobetzen saiatu naiz”. Oraindik bere helburuetatik “pixka bat urrun” dagoela aitortu arren, lanean gogor jarraitzeko asmo sendoa du, bere markak berdintzen ari dela ikusita.

Irune eta Nora antzeko bidea daramate, bakoitza bere erritmoan. Irune Ausanek errendimenduan eta teknikan jartzeko fokua, emaitzak prozesu horren ondorio gisa ikusiz: “Nire lehen helburua beti hobetzen saiatzea da; behin hori eginda, lortzen ditudan emaitzak ongi etorriak dira”. Nora del Rio, berriz, pozik hitz egiten du bere lorpenei buruz: “Nik nire markak hobetzea lortu dut, beraz, oso ondo”. Lorpen hauek ez dira kasualitatea, eguneroko sakrifizioaren fruitua baizik.

Igeriketa oso kirol zabala da, askotarikoa, eta bakoitzak bere erosotasun eremua aurkitu du urteetako praktikaren ostean. Maialen “tximeleta” estiloan espezializatu da, kimu mailan sartzetarako bizkar-igeriketa utzi eta modalitate honen aldeko apustua egin ostean. Distantzietan dagokionez, 50 eta 100 metroan aritzen da normalean, nahiz eta estilo librean 400 metroko probak ere gustuko dituen.

Irune bular-igeriketa eta libre konbinatzen ditu, distantzia luzeagoetan, 200 metrotik gora, erosoago sentituz. Nora, aldiz, nahiago ditu bestelako distantziak: “Bizkar-igeriketa eta librean distantzia laburragoetan hobeto moldatzen naiz, 100 metroen inguruan; luzeak ez zaizkit gehiegi gustatzen”. Desberdintasunak desberdintasun, entrenamenduetan denetarik lantzen dute. “Guztiok denetarik egiten dugu; garrantzitsua da apur bat dena menperatzea”, dio Irune Ausanek. Entrenamenduak egunka antolatzen dituzte: egun batzuk proba luzeetarako dira eta beste batzuk distantzia

motzetako abiadura lantzeko, aste osoa osatu arte.

“Nire lehen helburua beti hobetzen saiatzea da; behin hori eginda, lortzen ditudan emaitzak ongi etorriak dira”

Irune Ausan, Bidasoa XXIeko igerilaria

Bidasoa XXI familia

Igeriketa bakarkako kirol gisa ikusi ohi den arren, taldearen garrantzia erabakigarria da maila psikologikoan. Klubean

talde polit eta handia osatzen dutela diote, eta horrek asko laguntzen duela eguneroko ahaleginean. Gainera, taldearen kohesioa sustatzeko antolatzen dituzten irteerak, Benidormeko campusa kasu, ezinbestekoak dira. Maialen Fernandezek dioenez, “horrek harremanak estutzeko aukera ematen du, lagunak egin eta taldeko giroa sendotzeko”. Irunen ustez, igeriketa ez da asko praktikatzeko den kirola, baina klubean jende asko dabil.

Indar hori txapelketetan ere islatzen da, bai klubean arteko sailkapenetan puntu guztiak batuz, baita errelebo proba zirrargarrietan ere. Nora argitu duenez, “bakoitza bere kategorian lehiatzen da eta gero puntu guztiak batzen dira”. Erreleboetan lau pertsona aritzen dira elkarrekin, eta talde mistoak ere badira txapelketa ofizial absolutuenetan.

Hasierak eta etorkizuneko ametsak

Nola iritsi ziren uretara? Maialen ikastaroetatik iritsi zen Bidasoara; hasieran klubean sartzeko aukera baztertu zuen “ez nuelako nire burua txapelketetan ikusten”, baina azkenean baiezkoa eman zuen. Irune dantzaren mundua utzi zuen 8 urterekin klubean probatzeko, eta Nora, berriz, “txikitatik” darama uretan, bere pasioa hasieratik argi izanik.

Etorkizunari begira, ametsak uretan flotatzen dute. Maialen Fernandezek Espainiako Txapelketan domina bat lortzearekin egiten du amets, bere mailarekin oso pozgarria litzatekeela esanez. Nora del Rio nazio mailan lehiatzen jarraitu eta bere marka pertsonalak hausten jarraitu nahi du. Irune Ausanek, ordea, filosofia sakonagoa du: “Hobetzen joatea etengabe eta, bitartean, ondo pasatzea. Eta noski, kirol honetan urte askoz irautea”.

Elkarrizketa amaitu eta uretara bueltatu dira hiru igerilariak, saioak aurrera jarraitzen baitu. Haien mugimendu bakoitzak erakusten du junior mailako kirolari hauentzat igeriketa ez dela soilik ariketa fisikoa, bizitzeko modu bat ere badela baizik. Ikasturtea amaitzear dagoen arren, denboraldiko motorra bete-betean dabil, hurrengo txapelketan ehunenekoren bat jaitsi asmoz eta Kopa berriei gogotsu aurre eginez.

“Nik nire markak hobetzea lortu dut, beraz, oso ondo”
Nora del Rio, Bidasoa XXIeko igerilaria



C.D. SAN MARCIAL - 2023 - 2026 BABESLETZA

TALDEAREN **FUTBOL EGOKITUAREN ETA OINARRIZKO FUTBOLAREN** PROIEKUAN KOLABORATU
ENPRESA BAT BADUZU ETA KLUBAREN FAMILIAKO KIDE IZAN NAHI BADUZU, **ZURE ZAIN GAUDE!**

#GOAZENSANMARCIAL

Ama Birjina Mirarietakoa Kalea 7, Irún | 943 96 99 12 | patrocinos@cdsanmarcialirun.com





BETI GAZTE

TXINTXARRI: BAZTER GUZTIAK ALAITZEKO GOGOZ DEN NESKA- MUTIL GAZTEEN TXARANGA BERRIA

Irunek soinu berri bat du kaleetan barrena: Txintxarri txaranga. Energia berrituarekin ekin dio bere bideari, musika eta adiskidetasuna uztartuz. Hamabost kide gaztek osatua, talde misto honek jai giroa alaitzea du helburu nagusi, kontserbatorioan ikasitakoa modu askeagoan plazaratuz. Hasiera arrakastatsua izan dute, eta dagoeneko hainbat emanaldi eskaini dituzte, Ane Aristizabalek eta Noa Caverok elkarrizketa honetan azaldu duten bezala.

Noiz eta nola sortu zen Txintxarri txaranga?

Noa: Beno ba, aspaldi txaranga bat sortzeko ideia izan genuen eta, asmo horrekin, bereziki horretarako, Whatsapeko talde bat sortu genuen, baina azkenean lehen ideia hori ez zen aurrera atera. Hilabete batzuk igarota, ideia berriro berreskuratzea pentsatu genuen eta jada Whatsapp taldea sortua genuenez, berriro bertan idatzi genuen eta, oraingoa bai, aurrera atera da. Orain dela hilabete batzuk ekitaldiak egiten hasi gara eta horrela jarraitzen dugu.

Gutxi gorabehera, zenbat zarete taldean eta zein instrumentu jotzen dituzue?

Ane: 15 kidek osatzen dugu txaranga eta 16 eta 20 urte bitartekoak gara. Normalean hemen Urdanibia plazan dagoen kaperan entseatzen dugu, igandero. Dena den, emanaldia dugunean lehenago elkartzeko gara beste errepasso bat emateko.

Zergatik aukeratu zenuten txintxarri hitza zuen txarangari izena jartzeko?

Ane: Txaranga sortzen hasi ginenean, udara aldera, barbakoa bat egin genuen Aiako Harrian. Txarangarentzako izena eta kolorea pentsatzen hasi ginen eta aukera mordo bat genuen buruan. Norbaitek txintxarri hitza proposatu zuenean asko gustatu zitzaigun eta gainera bertan behien artean ginen, txintxarriak entzuten, beraz hori aukeratu genuen, originala iruditu zitzaigulako.

Oraindik zuen emanaldietara gerturatu ez direnentzat, zein musika mota entzun ahalko dute Txintxarri txarangan?

Noa: Ba apur bat denetik,

“Gure beste helburuetako bat euskal musika eta kultura zabaltzen laguntzea da, beraz, Euskal Herri osoan jotzeko prest gaude”

Ane Aristizabal, Txintxarri txarangako kidea

euskarazko eta gaztelarazko abestiak. Jo nahi ditugun kantekin zerrenda bat osatzen dugu, gero horiek ikasteko behar ditugun partiturak bilatzen saiatzen gara.

Ane: Geroz eta kanta gehiago ikasten eta abesten saiatzen gara, pixkanaka gure errepertoria abesti berriak gehitzeko. Baina bai, orokorrean beste txarangetan entzun daitezkeen abestiak jotzen ditugu guk ere.

Gehienak kontserbatorioan ikasitakoak zaretenez, txaranga batean aritzea oso ezberdina dela konturatu zarete?

Ane: Txarangako kideen % 90 inguruk kontserbatorioan ikasi dugu eta bertan sortu zen gure adiskidetasuna eta elkarrekin txaranga bat sortzeko ideia. Hain zuzen ere, kontserbatorioan ikasi dugu txaranga bat aurrera ateratzeko jakin beharreko



“Txarangan berriz, libreago sentitzen zara eta nabari da ondo pasatzeko giro batean zaudela”

Noa Caverok, Txintxarri txarangako kidea

guztia: instrumentu bat jotzen ikasi eta ikasketa antolatzen edo partiturak irakurtzen jakitea. Egia da, gainontzekoan, kontserbatorioak eta txaranga ez dutela zerikusirik. Txaranga giroa alaiagoa da, azkenean adiskideen artean zaude eta hori bera da gure helburua: musikaren bitartez gure inguruko giroa alaitzea.

Noa: Egia da ere txarangan presio txikiagoa duzula, kontserbatorioan ari zarenean gauzak oso ondo egin nahi dituzu eta horrek presioa dakar atzetik. Txarangan berriz, libreago sentitzen zara eta nabari da ondo pasatzeko giro batean zaudela.

Nola joan dira orain arte eskainitako lehen emanaldiak?

Ane: Oso gustura egon gara. Hasieran uste genuena baina arrakasta handiagoa izan dugu, jakin badakigu hasierak zailak izaten direla. Gure kasuan emanaldi asko egin ditugu, lagun eta familiaren babesarekin, eta oso gustura, egia esan.

Hori da, txaranga bat sortzeko ikusten ez den lan handia izan behar du atzetik, ezta?

Noa: Guk igandero entseiatzen dugu, baina egia da igandero ezin garelako elkartzeko. Norbaitek ezin badu ere, ahalik eta gehienak elkartzeko saiatzen gara beti eta horiekin entseiatzen dugu.

Datozen hilabeteetara begira, emanaldi berririk lotu duzue jada?

Noa: Maiatzera begira hainbat emanaldi lotzeko lanean ari gara, baina oraindik ez ditugu guztiz finkatuak. Baina dena loturik dugunean, gure sare sozialen bidez zabalduko dugu informazioa.

Eta txaranga osatzeko kide berriak onartzeko prest zaudete edo jada taldea guztiz osatua duzue?

Ane: Egia esan, txaranga nahiko osatua dago. Hala ere, gehienak

ikasleak garenez, gutako batzuk ezin gara beti etorri, beraz, beste txaranga batzuekin harremanetan jarri izan gara haien partaideek gure kideak ordezkatu ote ditzaketen jakiteko. Dena den, oraingoz nahiko osatuak gaudela esango nuke.

Txaranga gazte berri gisa, zer ekarpen egin nahi diozue hiriri?

Ane: Nik uste nabarmendu beharko genukeela gure txaranga mistoa dela, hau da, neska eta mutilez osatua dagoela. Izan ere, txaranga gehienak soilik mutilez osatuak daude, beraz, gurea alde horretatik nabarmentzen da. Baita ere kide gazteek osatzen dugula, ondorioz energiak beteta gaude eta giroa alaitzeko irrikatzen gaude.

Sareetan ere nahiko aktibo zaudete, gaur egun, ikusgarritasuna izateko funtsezkoa den zerbait.

Noa: Bai, adibidez, lehenago Pasaiara joan ginen eta abesti batzuen grabaketak egin genituen. Oraingoz lehenengo argitaratu da eta pixkanaka gehiago partekatzen joango gara.

Eta publikoaren aldetik, nolako balorazioa jaso duzue?

Noa: Momentuz esan digute oso ondo joaten ari zaigula. Txarangen munduan hasiberriak izan arren, jendeak esan digu oraingoz behintzat emanaldi asko izan ditugula. Normalean txaranga bat sortzen duzunean kostatzen da ekitaldiak lortzea, beraz, zorte handia izan dugu.

Txaranga bezala, zeintzuk dira etorkizunera begira dituzuen ametsak?

Ane: Pixkanaka emanaldi geroz eta gehiago lortzen joan nahi dugu. Gure aldetik, prest gaude edozein ekintzetan parte hartzeko eta proposatzen zaizkigun giro guztiak alaitzeko. Gure beste helburuetako bat euskal musika eta kultura zabaltzen laguntzea da, beraz, Euskal Herri osoan jotzeko prest gaude. Beraz, hori da helburu nagusia, proposatzen zaizkigun giroak alaitzen jarraitzea eta musikaz disfrutatzea.

LAVANDERIA
Garbi goxo
VENDING - LAVANDERIAS

ZURE KONPONBIDE INTEGRALA
GARBI GOXON, ZURE BIZITZA ERRAZAGO EGITEN DUGU
GARBITEGIA - MASKOTA GARBITEGIA - VENDING 24H
EGUNERO IREKITA 8:00ETATIK 22:00ETARA

Puiana Kalea 18 | 621 15 09 79 | www.garbigoxo.com | info@garbigoxo.com

V ARAMBURU

ZURE LEIHO-FABRIKATZAILEA IRUNEN - 30 URTE BAINO GEHIAGOKO ESPERIENTZIA DUGU SEKTOREAN.
LEIHO, ATE, BARANDA, PERTSIANA ETA TOLDOAK INSTALATZAILE ONENEN BERMEAREKIN

Gabiria Kalea 42, Irun | (+34) 943 62 22 57 | info@ventanasaramburu.com | www.ventanasaramburu.com



CBA Kultur Gunea
 943 50 54 44
 igazte@irun.org
 607 77 11 73
 www.irun.org/igazte

GRAFITI TAILERRA



Maiatzaren 28an, osteguna, doako grafiti tailer bat izango da Martindozenea Gaztelekuan. Tailer horren bitartez, grafitien munduan murgilduko gara. Lehenik, grafitiaren kultura ezagutzeko sarrera teoriko labur bat izango dugu. Ondoren, gure "tag" sinadura sortu eta paperean praktikatu dugu letra eta koloreak konbinatuz. Azkenik, spray teknika erabiliz, sortutako diseinua panel batean margotuko dugu. Animatu zaituzte grafiti tailerren parte hartzera!

Izen-emateak: Gaztelekuan bertan edo whatsappera (690706471), Instagramera (@gazteleku_martindozenea) edo korreora (gazteleku@irun.org) mezu bat bidaliz eman dezakezu izena.

EMANTZIPAZIOARI BURUZKO TOPAKETA



GazteARTEan zerbitzuak "Etxebizitza eta gazteak. Zer aukera eta baliabide ditugu?" hitzaldia antolatu du CBAko Kultura eta Sorkuntza Zentroan, 18 eta 35 urte bitarteko gazteei emantzipaziorako gakoak emateko.

Adriana Carretero GAZ zerbitzuko adituak gidatuko du saioa, eta bertan alokairurako zein erosketarako laguntzei eta legezko baliabideei buruzko informazio zehatza eskainiko da, erabaki egokiak hartzen laguntzeko.

Solasaldia 18:00etatik 19:30era izango da, eta izen-ematea apirilaren 17an irekiko da udalaren webgunean, plaza guztiak bete arte.



KULTURA

ZURE ABENTURAREN BILA



"Red Bull X-Alps 2025 - Alpeak alderik alde oinez eta hegan", Mattin Iñiguezzen eskutik.

Eguna: 2026ko maiatzaren 7an.

Lekua: Amaia kultur zentroan.

Ordua: 19:30ean.

Sarrera: Librea, aretoaren edukiera bete arte.

Hizkuntza: Euskaraz.

MUSIKA 'BENGO'



Bengo izenaren atzean Aitor Bengoetxea artista polifazetikoa dago: eszena urbanoko ahots propioa, eta ohotzaren energiaren lehertzen den performerra.

Eguna: 2026ko maiatzaren 16an.

Lekua: CBA Kultura eta Sorkuntza zentroa.

Ordua: 21:00etan.

Sarrera: 10,25€ orokorra eta 7,20€ hobaridunentzat.

ERAIKI DANTZA TALDEA



Behobiako Eraiki Dantza Taldeko adin desberdinetako kideek Euskal Herri osoko dantza tradizionalen emanaldia eskainiko dute.

Eguna: 2026ko maiatzaren 23an.

Lekua: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 18:30ean.

Prezioa: 5,65€.

GELTOKI: MARIA MARTÍN



Irunen jaiotako soprano honek ibilbide oparoa garatu du hainbat antzoki handitan, adibidez Milango alla Scala ospetsuan, nazioarteko sari ugari irabaziz eta opera zein errepertorio sinfonikoko rol garrantzitsuak interpretatuz.

Eguna: 2026ko maiatzaren 29an.

Lekua: CBA Kultura eta Sorkuntza zentroa.

Ordua: 19:00etan.

Prezioa: 5,65€



ZURE TABERNA IRUNGO ERDIGUNEAN
GOSARIAK - BAZKARIAK - AFARIAK

Zabaltza plaza 8 | (+34) 943 02 06 24



PAPERDENDA - KOPIADENDA - ESKULAN TAILERRA

Luis Mariano kalea 12 | (+34) 943 63 93 01 | irun@folder.es | www.folder.es

Zure konponbide integrala

Garbitegia

- _ Garbitegi autozerbitzua
- _ Enpresa txikientzako etxez etxeko zerbitzua: Garbitu, lehortu, lisatu eta paketatzea
 - _ Etxebizitza turistikoak, elkarteak, jatetxeak landetxeak, ...



Txakur Garbiketa

- _ Maskotak garbitzeko autozerbitzua
- _ Maskotentzako ile apaindegia, hitzordua eskatu: 621 153 065 zenbakian



Vending 24/7



Puiana kalea 18
 (ospitalearen ondoan)
 08:00 - 22:00
 info@garbigoxo.com
 621 15 09 79

